EDITORIALA

## Sólo crece el paro

Resulta imposible sustraerse a un sentimiento de pesimismo profundo ante los indicadores económicos de los últimos tiempos. Cada mes, las cifras oficiales del paro lanzan un escalofrío sobre la ciudadanía; después, las de otros organismos con datos menos mediatizados se encargan de agravarlas.

Las ocasionales declaraciones de algunos portavoces gubernamentales de que, a pesar de los datos del 93, «se ha tocado ya el fondo» de la crisis, son desmentidas día a día. Incluso desde la Comisión Europea, que ha trazado un muy sombrío pronóstico para los próximos dos años en el Estado español, dejándolo prácticamente fuera de la Unión Monetaria Europea.

En esas circunstancias, el Gobierno sigue adelante con una reforma del mercado de trabajo y las relaciones laborales, que, según denuncia sindical, ya está teniendo consecuencias «perversas». El Ejecutivo ha suavizado algunos de sus planteamientos, más movido probablemente por la gravedad de los datos y previsiones que maneja que por razones de estricta justicia social. Una sociedad con un 22% de parados y buena parte de ellos en situación precaria se convertiría en una amenaza a esa «paz social» que el Gobierno quiere asegurar para, según dice, estimular la inversión.

Junto a esa rectificación parcial, sin embargo, el Gobierno mantiene la filosofía de fondo, inspirada por las tesis empresariales y de los partidos más conservadores, con la inseguridad que conllevan para los asalariados.

Si inevitable es sentir pesimismo ante los datos, descorazonador resulta presenciar la pasividad en el aporte de soluciones efectivas. Desde que la crisis agudizada asomara en 1992, ninguna de las duras medidas introducidas por el Gobierno central la ha paliado. Tampoco en Hego Euskal Herria parecen reaccionar, salvo con palabras, las instituciones ni las asociaciones empresariales ante la cifra de más de 200 parados diarios en octubre. Pero el tiempo de los lamentos ha pasado ya. La sociedad tiene derecho a exigir soluciones y responsabilidades, así como el cumplimiento de tantas promesas —algunas de ellas muy recientes— que se han exhibido ante sus ojos.

egin

HOY ESCRIBE

## Gasteizko Legebiltzarrari

Paulo AGIRREBALTZATEGI / Eta hamahiru sinadura gehiago

GAUR ostirala, ez legezko proposamen baten eztabaida izango da Gasteizko Legebiltzarrean Euskaltegi libreentzako dirulaguntzari buruz, eta hemendik denbora gutxira 1994rako aurrekontuen eztabaida. Gertakari hauen aurrean euskalgintzako hainbat lagunek alderdi politikoei, lehendakari jaunari eta gizarteari beren jarrera eta iritzia agertzea erabaki dute. Honekin batera doakizuen gutuna ez doa beraz, inolako talde edo erakunderen izenean, arazoaz kezkaturik dauden herritar horien izenean baizik:

«...jauna/anderea, Gasteizko Legebiltzarrean... alderdi politikoko burua: Agur!

Azken aldi honetan alde askotatik kritika —autokritika— eta gogoeta berria eskatzen ari dira euskalgintzaren inguruko jokabideei eta politikari buruz. Gogoeta berri horren inguruan, zuri, zure alderdiari eta Gasteizko Legebiltzarrean ordezkaritza duten beste alderdi guztiei agertu nahi dizuegu geure iritzia. Zehazkiago, laster "Euskaltegi Libreentzako" diru-laguntzari buruz eztabaidako den ez-legezko proposamenaren eta geroxeago eztabaidatuko diren 1994erako aurrekontuen aurrean doazkizu gure iritzi eta eskabide hauek.

Euskararen normalkuntza prozesuan helduen alfabetatze-euskalduntzeak duen garrantzi funtsezkoa ukaezina dela uste dugu. Euskararen Aholku Batzordeak bere "Euskararen politikarako Oinarrizko Irizpideak" —1993ko ekainaren 18an emandako dokumentuan— horri buruz esandakoak oso aintzakotzat hartzekoak direla uste dugu. 5.3. atalean honako hau dio: "Helduen euskalduntzearen aldeko ahalegin eta antolamenduek, publiko eta pribatuek, osatu dute helduen arteko euskalgintzan eskolaren betekizuna. Gizartetik, eta erakundeetatik ekimen zabalak burutu dira kasu honetan...". Honela hasten da sailari buruzko gogoeta; eta honela amaitzen da atala: "Euskalduntze-alfabetatzeetan azken hamarkadan erakundeen eta gizarte ekimenaren eraginez bizi izandako plangintzak ere merezi du pausaldi bat, iragan horri begiratu bat emateko. Une ona da, urteotan ikasitakoaz baliatuz, erakundeen eta, oro har, gizartearen plangintza berritu bati bide emateko". Bestalde, 4.3. atalean honela dio: "...erakundeen eta gizarteekimenen arteko gatazkak arindu eta konpontzeko behar larria dago: (...) adostasunerako jarrerak bultzatuz eta aurkakeriaren kultura gaindituz".

*Euskaltegi Libreentzat diru-laguntza ez murriztea eskatzen dugu*

Guztiz bat gatoz hasierako balioztapenarekin eta azkeneko iradokizunarekin. Gizarte osoarekin batera, Legebiltzarrari berari dagokio aurretik horrelako gogoeta bultzatzea, eta horren araberako erabakiak hartzea.

Testuinguru horretan, eta bereziki aurrera begira, guztiz kezkagarria eta larria iruditzen zaigu "Euskaltegi Libreei" aurtengo diru-laguntza kentzearena, aurtengo Aurrekontuetan onarturikoaren kontra, eta, bide batez, aurrera begira horien lana zalantzan jartzea eta aurrerako ahalegina kolokan ipintzea. Izan ere, gizarte ekimenaren barruan guztiz garrantzizkotzat jotzen baitugu horiek betetzen duten funtzioa alor horretan.

Horregatik, begirune osoz, zure aldetik eta zure alderdiaren aldetik, Legebiltzarrean izango diren bi eztabaidetan, honako bi puntu hauen alde jokatzea eskatzen dizugu:

1.— Azken Aurrekontuetan Euskaltegi Libreentzat onarturiko diru-laguntzaren puntua betetzeko modua bilatzea.

2.— Hurrengo urterako Aurrekontuei begira, euskalduntze-alfabetatzearentzako, eta bereziki "Euskaltegi Libreentzat", diru-laguntza ez murriztea».

Sinatzen dugu: Paulo AGIRREBALTZATEGI, Adolfo AREJITA, Ana EIZAGIRRE, Xabier GARAGORRI, Gotzon GARATE, Joseba INTXAUSTI, Joan Mari IRIGOIEN, Xabier KINTANA, Ramon LABAIEN, Iñaki LARRAÑAGA, Andoni SARRIEGI, Martin UGALDE, Patxi URIBARREN, Andres URRUTIA.



EL PUNTO

## A vueltas con la tortura

Con la letra del Código Penal vigente, parece ser que no se puede acusar de «torturas» a los ertzainas en cuyas manos murió Juan Calvo porque los presuntos malos tratos, según las versiones oficiales manejadas, no se produjeron «en el curso de la investigación policial o judicial, y con el fin de obtener confesión o testimonio», que es como se encuadra el delito de torturas. Sí se puede, sin embargo, decir a bombo y platillo que Julio Iglesias Zamora «fue torturado durante 117 días», aunque sus supuestos torturadores ni son «autoridad o funcionario público» ni actuaron en el curso de investigación alguna, requisitos ambos indispensables para que se dé la figura delictiva de «tortura». Y si un día son detenidos los militantes de ETA que retuvieron a Julio Iglesias —en durísimas condiciones de vida, es verdad, pero sin tortura— el fiscal pedirá para ellos condenas muy elevadas, añadiendo todos los agravantes. Por el contrario, si algún día se aclara lo que ocurrió con Juan Calvo o qué guardias civiles (funcionarios públicos) maltrataron a Joxe Lasarte o Gurutze Yanci, por citar dos ejemplos, «con el fin de obtener confesión o testimonio», las penas máximas que se podrán pedir serán irrisorias en relación con los hechos sucedidos, con sus consecuencias. Se ve que la paradoja y las dos varas de medir están incluso en las tablas de la Ley.

**Teresa TODA**

LA COMA

## Gehiengoaren izenean

Gazte intsumituek orain arte epaileen zigorrak, polizien jipoiak eta politikoen hitz goxoak baino ez dituzte ezagutu nahiz beren aldeko mugimendua gero eta zabalagoa den.

Hala ere, indar polizial eta judizialek bere horretan diraute eta errepresioa intsumisoez gainera beren solidaritatea adierazten dieten gazteek ere ezagutu dute, azken adibidea Elgoibar izan delarik. Baina Elgoibarren Ertzaintzaren jarrerari, herriko agintariena gehitu behar zaie, poliziek PNVren babesarekin baitihardute, inposaketaren bidez herria normalizatzea erabaki baitu.

Gaztetxea eraitsiaren ordez komun-publikoak eraiki zituen Udalak herri honetan eta herriko gazteen bilgune zen eraikuntza zutik ikusi nahi zuten herritarren bizkarrak ertzainek ederto ferekatu zituzten udal agintarien ekimenez. Urte bereko herriko festetan PNVko zinegotzi bat polizien gidari bilakatu zen. Atzo atxilotutako gazteak ez zuen alkatearen arreta merezi izan, nahiz aurreko egunean polizia batek bere pistola erakutsi zion kriminal arriskutsu bat bailitzan, bere deliktu bakarra, polizien esanetan, trafikoa oztopatzea izan zelarik.

Elgoibarren PNVk herritar batzuk beren iritzia azaltzeko eskubiderik ez dutela eta horiek isil arazteko edozer zilegi dela erabaki du antza, herri horretan gehiengoa baita. Hitlerrek ere, garaiko alemaniar gehienen babesa zuela eta, makinatxo bat barrabaskeria egin zituen.

**Bego ZUBIA**